

Lehen Aukera 2014

(1. gidaliburua)

INFORMAZIO OROKORRA

Zer da Lehen aukera?

Euskal enpresetan gazte langabeak kontratatzeko laguntzen deialdia da.

Zer baldintza bete behar dituzte enpresek eta erakundeek kontratuak egin ahal izateko?

- EAEn egoitza izatea.
 - Azken urtean enplegurik ez suntsitu izana.
 - Langileen legezko ordezkariari jakinarazi izana.
 - Berariazko laguntzarik ez jaso izana.
- Ez erakunde autonomiaduna, ez sozietate publikoa, ez Administrazioari lotutako elkarteak, ez aldi baterako laneko enpresa ez izatea.
- Kontratatzeko interesa duten enpresek II. eranskinetako dokumentu guztiak beteta bidali behar dituzte urriaren 3a baino lehen, eta onarpenaren zain egon. Iritsitako ordenaren arabera emango dira laguntzak, aurrekontua agortu arte.

Laguntzen zenbatekoak

Enpresei 2.450 eurotik 3.620 eurora bitarteko laguntzak emango zaizkie, eta % 10 gehiagokoak 12 hilabeteko kontratua eginez gero.

Zentro laguntzaileei (Ikaslan) 120 euro emango zaizkie, eskaintzak bildu eta erregistratzeagatik (zentroekin partekatuko da, egindako lanaren arabera).

Zentro akreditatuei (326/2003 D.) 80 euro emango zaizkie eskaintza kudeatzeagatik.

Laguntzak eskatzeko epea

- Urriak 3 enpresentzat
- Abenduak 1 zentro laguntzaileentzat

Norentzat da?

Enpresentzat, gazte langabeak eta eskuratu duten titulazioarekin lotutako enpleguetan lan-espereziarik ez dutenak edo oso esperientzia urria dutenak kontratatze aldera.

Praktikaldiko lan-kontratua denez, aurretik horrelakorik izan duen ikusi behar da. Eskaintza bildu, erregistratu eta kudeatzeaz arduratuko diren zentro laguntzaileentzat.

Onuradunek bete beharreko baldintzak

- 16 urtetik gora eta 30 urtetik behera izatea
- Bizilekua EAEn izatea
- Langabea izatea, Lanbiden izena emanda egotea, eta 25 urtetik behera izanez gero (edo 30 urtetik behera, desgaitasunen bat duten gazteen kasuan) **Gazte Bermearen Sistemari nahitaez alta emanda egotea.**
- Behar den titulazioa izatea:
 1. taldea: lizentziaturak, diplomaturak eta antzekoak

2. taldea: erdi-mailako eta goi-mailako zikloak eta antzekoak
Lanbide-gaitasunaren ziurtagiriak eta antzekoak

- Kontratua egin aurreko 30 egunetan lanik egin gabe egon izana.

Zenbat diru baliatuko da?

4.999.276 euro, guztira. Haietatik 4.698.276 euro kontratueterako, eta 301.000 euro eskaintzak biltzeko, erregistratzeko eta kudeatzeko lanak egingo dituzten zentro laguntzaileentzat.

Noiz jarriko da abian?

Abian dago jada, eta kontratuak egiteko asmoa duten enpresek diru-laguntzak eskatzeko epea zabalik dute urriaren 3ra arte.

Kontratuak 2014ko azaroaren 21a baino lehen egin behar dira.

Kontratuak 6 hilabetekoak izango dira gutxienez, eta 12 hilabetera arte luza daitezke.

Zer kontratu egin daitezke?

- Ikasketa-mailaren araberako lanpostuak betetzekoak.
- Kontratua egin aurreko azken 6 hilabeteetako batez bestekoan enpleguaren sortze gordina dakartenak.
- Lanaldi osoan edo lanaldi partzian jardutekoak, baina inolaz ere ez lanaldiaren % 70 baino gutxiagokoak.
- Titulazioaren arabera ezarritako gutxieneko urteko ordainsari gordina konplitzen dutenak.
- Titulazioa, hasteko eta amaitzeko eguna, iraunaldia eta beteko den postua jasotzen dituztenak.
- Lanpostuko jardunaren jarraipena egiteko arduradun bat izendatua dutenak.

Zer kontratu ezin daitezke egin?

- Enpresako arduradunekin bigarren mailara arteko ahaidetasuna duten pertsonen kontratazioak.
- Lanbideren beste diru-laguntza batzuk jasotzeko aukera dutenak.
- Hilean 1.051 euro baino gutxiagoko ordainsari gordina dutenak, 1. taldeko titulazioen kasuan.
- Hilean 872 euro baino gutxiagoko ordainsari gordina dutenak, 2. taldeko titulazioen kasuan.

Zentro laguntzaileak

- Ikaslan zentro laguntzailea izango da, eskaintzen bilketa eta erregistroa egin ahal izateko. Zentro publikoek ezin dute, banaka, ardura hori hartu, IFK bakarria baitute denentzat.
- .

Nolako prozedura erabiliko da?

Zentroek programaren ezaugarrien berri emango diete enpresei eta ikasleei.

Enpresak diru-laguntza eskatuko dio Lanbideri, II. eranskina beteta.

Laguntza hori onetsi ondoren, IV. eranskina bete eta eskaintza bakoitza Lanbideren sistema informatikoan erregistratu eta identifikatuko da.

Eskatutako profilaren arabera hautagaien curriculumak bidaliko zaizkio enpresari.

Hautagai gisa bidalitako pertsonekin egindako kontratuentzat soilik emango dira diru-laguntzak.

Kontratua egin dela jakinaraziko du enpresak, eta laguntzaren lehen zatia jasoko du.

Hasiera batean kontratatutako pertsonak ordezkatzeko aukera dago gero.

Enpresak amaierako txostena egingo du, eta diru-laguntzaren gainerako zenbatekoa jasoko du.

Egin beharreko jardunak eta egiteaz ardura daitezkeen eragileak

Biltzea. Zentroak. Enpresak lan-eskaintza jakin baten premia duela jasotzen du.

Erregistratzea. Ikaslan. Eskaintzak Lanbideren aplikatibo informatikoan sartzen ditu.

Eskaintzaren kudeaketa. Zentro akreditatuak. Eskaintza eta enplegu-eskatzaileak gurutatu eta dagozkion curriculumak bidaltzen zaizkio enpresari, hautaketa egin dezan.

Ikasleak/pertsonak AURREHAUTAGAI gisa sisteman sartzeko aukera dago... Horrek bermatzen du enpresak jasotzea, besteak beste, guk nahi ditugun curriculumak.